

**ETA EMAKUMEARI**

**SUGEAK**

**ESAN ZION**

LOURDES OÑEDERRA

Ikaslea: K. P.  
2002-2003

# AURKIBIDEA

LOURDES OÑEDERRA.....	1
SARRERA.....	1

## ETA EMAKUMEARI SUGEAK ESAN ZION

• KOKAPENA .....	2
• GAIA .....	2
• EGITURAKETA .....	2
• BALIABIDEAK .....	3
• IRITZIA.....	5
 BIBLIOGRAFIA.....	 10

# LOURDES OÑEDERRA

1958an Donostian jaiotako Lourdes Oñederra dugu “Eta emakumeari sugeak esan zion” izenburuaz aurkezten zaigun obra honen sortzailea. Euskal eleberrigintza modernoan aritua den emakume hau hizkuntzalaria da, Filologia Hispanikoan lizentziatua eta Euskal Filologian doktore, hain zuzen. Liburuak idaztearekin batera, Fonologiako irakasle gisa aritzen da Gasteizko E.H.Uko Filologia Fakultatean.

Momentuz eleberri ugari idatzi ez baditu ere, aspalditik dugu literatur klubeko kide R.Saizarbitoriaren *Ehun metreri* idatzitako epilogoia nahiz *Ere eta Oh, Euskadi!* aldizkarizko artikuluak direla eta. Sasoi honetatik gertuago, *Egunkariako* zutabegile gisa ezagunago gertatuko zaio askori.

## SARRERA

*Erein* argitaletxearen eskutik kaleratutako obra honek, 1999 eta 2000 urteen bitartean lau argitalpen jasotzez gain, “Euskadi” literatura saria 2000 jaso du.

Lourdes Oñederrak “Eta emakumeari sugeak esan zion” deitutako lan honetan Teresa izeneko emakume bat dugu protagonista, honek sentitzen duen bakardadean oinarritutako bizipen eta sentimenak kontatzen zaizkigularik. Luzaroan bizi izan duen eta alde batera utzi ezin duen bizimodu aspergarri, triste eta bakarti batetatik ihes egin nahian, Teresa bere senarra den Andrésekin batera Alemaniara urtebetez joango da. Bertan, ordea, aspaldian maitale izandako Luisi eta honek bere barnean utzitako oinaze sakonari aurre egin behar izango die. Bere bizitzan zehar gizon ugari ezagutu baditu ere, ez da egon Teresak barnean duen hutsune hori betetzeko gai izan den gizon bakar bat ere, ezta hamar urtez bere senarra izandako Andrés ere. Orein noraezean, bakarrik, triste, galduta bezala aurkitzen da gure protagonista.

Teresaren bizipen eta sentimenak iragana eta orainaren artean, Alemania eta aurrez bisitatutako lekuetan, sakabanaturik aurkezten zaizkigu. Idazleak, bestalde, protagonistaren bizitzari irtenbidea emango dion prozesua lau epealdi nagusitan, lau urtarotan hain zuzen, banatzen du: udazkena, negua, udaberria eta uda. Honekin batera, Teresaren bizipen eta une garrantzitsuenak goraiatzeko, zenbait asteburutako egun eta orduak zehazten ditu, istorioaren ordena mantentzeko pasarte konkretu hauetaz baliotuz.

Emakume baten gogoeta eta sentimenduetan sakonki murgilduko gaitu, beraz, eleberri honek.

# ETA EMAKUMEARI SUGEAK ESAN ZION

## KOKAPENA

Obra honetan denborazko kokapenari dagozkion datuak zehazten ez badira ere (datari dagokionez), gertakizun nagusiak urte beteko epearen buruan garatzen direla dakigu. Urte hau Teresak, protagonistak, Andrés bere senarrarekin eta gaztaroan bere maitale izandako Luisekin Alemanian (Wittgensteinen hain zuzen) igarotako bera dugu. Urte hau erabakiorra izango da teresarentzat, bakardadea eta tristuraren menpe daraman bizimoduari irteera bat bilatzeari ekingo baitio. Denboraldi honetan zehar, ordea, emakume honen sentimenen gorabeheretan murgilduko da kontaketa, ondorioz, denboran eta Teresak bisitatutako leku desberdinen artean saltoak emango dituelarik, beti ere hari nagusia jarraituz.

## GAIA

Emakume baten bakardadea. Honela definituko nuke eleberri honen gaia.

Istorio osoan zehar protagonistaren bizipen eta gogoeta ugari kontatzen badira ere, denak Teresak bere bizitzan sentitzen duen bakardadera murrizten dira, inork bete ezin dion hutsunera, hain zuzen.

## EGITURAKETA

Aurrez esan bezala, obra honek kontatzen duen istorioa edo, hobeto esanda, istorio honen hari nagusia urte beteko epean ematen da, udazkenetik udaraino Alemanian Teresak Andrés eta Luisekin emandako urte horretan. Hala ere, ezin dugu esan gertakizunen garapena lineala denik bere osotasunean.

Alemanian igarotako urte hau erabakiorra izango da Teresarentzat, horregatik istorioa denboraldi honetan kokatzen da. Hau antolatzeko, gainera, lau urtaroez izendaturiko lau atal nagusietan banatzen da kontaketa (udazkena, negua, udaberria eta, azkenik, uda), honekin batera zenbait asteburutako egun eta momentuak data eta ordua zehaztuz goraiatzeko direlarik.

Dena den, narrazioak etengabe Teresaren pentsamenduan murgiltzen gaitu, bere gogoetetan, *flash-back* delako teknikaren bidez sarritan denboran atzera saltoak ematen dituelarik. Gainera, zenbait kasutan oraindik gertatzen dauden ekintzak aipatzen dira, narratzaileak haien berri balu bezala. Guzti hau dela eta, esan dezakegu istorioak hari jarraitzaile bat izan arren, denboran zehar aurrera eta batez ere atzera ibiltzen dela, eta horregatik ezin dugula bere osotasunean narrazio lineal moduan definitu.

## BALIABIDEAK

Obra honetan nabaria da eleberrigintza modernoaren tekniken erabilera. Hasteko, esan beharra dago kontaketa era landua eta era beran bitxia dela. Bigarren pertsonako narratzaile bat erabiltzen da, narratzaile orojakile bat, hain zuzen. Honek, pertsonaiei buruz jakin beharreko guztiaren berri du (beren ekintzak, nahiak, sentimenduak, pentsamenduak, etab.) eta beraiei, Teresari bereziki, beraien kontzientzia balitz bezala zuzentzen zaie: “Uste zenuen Marisa bezain argia eta bera baino politagoa zinela eta horregatik nahiago izaten zutela gizonek, Marisaren adineko gizonek, zure konpainia gaztea”. (99. or.)

Kontaketa era landua dela esango genuke, esaldi labur eta sinpleak erabili arren, ideia ugari paragrafo bakar batean eta sarritan ia aditzik erabili gabe elkarlotzeko gai delako idazlea. Honela, hitzak ondo bilatuz eta esan nahi dena adierazteko kontzeptu oso argiak erabiliz, sakonki murgiltzen da mezu bakoitzean.

Aipatzekoa da ere lan osoan zehar beste hizkuntzetatik hartutako maileguen erabilera, nahiko teknika modernoa dena, alegia. Honakoak dira adibide batzuk:

*“Excitante. Voyeur mozkorra”*. (71. or.)

*“Did not present her..., while it lasted”*. (82. or.)

*“Ojalá mi madre fuera así de feliz conmigo,...”*. (133. or.)

*“The only possible intercourse”*. (133. or.)

*“...ein pear Monate, one or two months”*. (158-159. orr.)

Espresaerei dagokienez, narrazioa da nagusi. Dena den, badira ere zenbait deskribapen nahiz elkarrizketa. Azken hauei buruz aipatzekoa da zeharkako elkarrizketen erabilera, hauek zuzeneko elkarrizketen gainetik nagusitzen baitira. Hona hemen zenbait adibide:

### - NARRAZIOA:

*“Hegazkinen bateko azken bidaiariak ari dira ateratzen tantaka, edo abioiren bateko lehenak. Banan-banan ateratzen dira. Pixkanaka, multzokatuz doaz, eta ate automatikoaren irekialdi batean hogeit bat atera dira elkarren ondoan, elkarren segidan. Luisi bihotzak jauzi egin dio eta ahosabaia lehortu zaio. Ez, ez zara zu. Emakume horrek baditu berrogeita hamar urte, gainera ez du ezertan zure antzik. Ile laburrak eta galtza bakeroek nahasi dute. Baina, egia esan, Luisek ez daki orain zuk nolako ilea izango duzun, ezta bakeroak erabiltzen dituzun ere. Ez zizun horrelakorik galdetu, telefonoz hitz egin zenutenean. Etxeaz eta datez hitz egin zenuten bakarrik. Ez, politikaz ere zertxobait, gauza handirik ez”*. (22. or.)

- DESKRIBAPENA :

*“Hara, hori bai. Zu, Teresa. Jaka ilun handi bat eta gona beltz luzea. Ilea, motza, baina ez Luisek irudikatu bezain motza eta, gainera, ondulatu xamarra. Kirol zapatila zuriek itxura xelebrea ematen dizute. Zure aurpegiak ere ohetik jaiki berriarena dirudi, gaizki lo egin ondoren ohetik jaiki denarena. Zure ondoan, maleta-gardia bultzatzen, zure senar inteligente garaia”.* (23. or.)

- ELKARRIZKETA:

- Zeharkakoa: *“Bitartean, Andrések eguraldiaz galdetu dio Luisi eta berak Andési, hegaldiaren iraupenaz. Aparkalekuen prezioak eta ordain-sistemak, uste zuela gertuago zegoela, baina engainatu egiten dutela eraikuntza hauek, bai beste ate batetik sartu dela”.* (24. or.)

- Zuzena: *“Hola, ni naiz!” esan duzu ozen pasilotik barrena sukaldarantz ibiliaz.*

*‘Uste genuen alde egin zenuela betiko’ erantzun dizu irribarrez Andrések mahaiaren ondotik. Kafesne katilua eskuan dauka.*

*‘Ez da horren erraza zuengandik ihes egitea’.* (157. or.)

Espresaerez gain, ez ditugu hizkuntza baliabideak ahaztu behar. Hauek kontaketa osoan zehar maiz ageri dira, honi kutsu landua ematen diotelarik. Metaforak erabilienak badira ere, pertsonifikazio nahiz konparazio edo aldarapenak ere aurki ditzakegu:

- METAFORAK:

- *“...sumendia zara, iraileko olatua Paseo Berrian, praile budista laranjaz jantziek jotzen duten gong erraldoi baten erdigunea, eztanda, Niagarako kataraten ur jauzirik azkarrena, abuztuko txupestak Kontxan”.* (81. or.)

- *“Bidearen morroi gara, hitzaren esklabo”.* (133. or.)

- *“Hasten zenekien. Abiatu egiten zinen. Zubia eraikitzen hasten zinela uste zenuen”.* (151. or.)

- *“Zu zara lotura. Zu zara eten beharreko korapiloa. Zu, zure gorputza, zubia, gizon bien arteko hestea”.* (154. or.)

- *“Zuk korapilo trinkoak dauzkazu barrenean, bici izan dituzun urteak, guztiak, irekirik geratu zaizkizu, bata bestearen ganean daukazu denak tripetan nonbait, bakoitzak bere korapiloen ertzak zintzilik”.* (167. or.)

- PERTSONIFIKAZIOAK:

- *"...perfume sakon baten limoi usainak usaimena baino barruragoko zerbait ukitu dio Luisi"*. (23. or.)
- *"Kaleak beira grises janzten ditu tantorik gabeko euri etengabeak"*. (133. or.)
- *"Hil egingo zaituzte medikuaren hitzek"*. (134. or.)
- *"Oraindik odol analisietako mugak gainditzen ez dituen animaren lohiak itotzen bazaitu"*. (155. or.)
- *"Analisien emaitzek bakar-bakarrik utzi zaituzte"*. (164. or.)
- *"Zu zinenaren nostalgia daukazu bularraldea erretzen"*. (167. or.)

- KONPARAZIOAK:

- *"Oinazetik eman gabe, batetik sartu eta bestetik atera, leun, gizonaren zakila hustu eta txikitu denean ateratzen den bezain leun"*. (179. or.)
- *"Paisaia leihatilan bezala ezabatzen den oroitzapen gozo leuna"*. (179-180. or.)

# IRITZIA

Obra hau, bere osotasunean, bitxia eta interesgarria iruditu zait, bai istorioari dagokionez, bai hau kontatzeko erari dagokionez ere. Dena den, hauek izan dira nik bereziki lantzeko hautatu ditudan pasarteak:

## **1go PASARTEA:**

*“Duela ordu gutxi utzi duzuen hiri horretan elkarrekin pasa dituzuen urteetan, hamar urte horietan, aspertu egin zarete apika. Gauza asko egiten saiatu bazara ere, egunerokotasunak jan ote zaituzten kezka sortu zaizu. Batidanik pentsatu izan duzu beti hiri berean bici den jendea, lagun berak eta ohitura molde betikoetatik irteten ez den jende txukuna hilda dagoela. Bizitzea ezkutukoak ateratzea dela, barreneko beldur ezezagunak ateratzea, sentitzea. Hori dela bizitzea eta beste guztia, kasurik onenean, erdizka bizitzea dela. Ustel xamarra. Aspergarria, begiratzeko duenarentzat behintzat. Baina zuek ere, agian, tranpan erori zarete. Beharbada ez dago beste biderik”.* (16. or.)

Bere eduki edo mezuarengatik aukeratu dut pasarte hau. Teresak Andrésekin igarotako hamar urteei buruzko erreflexio bat egiten du, non zera ondorioztatzen duen: aspertu egin dela. Giroz, konpainiaz, etab.-ez ez aldatzeak dakartzan ondorioa dugu aspertzea. Egunerokotasunaren kontzeptua aipatzen da, egun geroz eta gehiago hedatzen ari den egunerokotasuna. Pentsatu ere egin gabe, bere eskutan uzten dugu gure bizitza, berak zuzen dezan uzten dugu, eta honela jausten gara denok bere menpean. Oso ona iruditzen zait Teresak pasarte honetan egiten duen erreflexioa, denok geure eguneroko bizitzan aplikatu beharrekoa, egunerokotasunak geroz eta indar handiagoa hartzen ari baitu geure errealtatean. Egia da, azken finean, hemen esaten dena: bizitzea ezkutukoak eta beldurrak ateratzea da, sentitzea. Ez dugu inolaz ere konformistak izan behar, daukagunarekin aurrera jo, erremediorik ez balu bezala. Ez, sentitzen duguna kanpora atera eta bizi egin behar dugu. Bizitzari zentzua aurkitu eta hura aprobetxatu.

## **2. PASARTEA:**

*“Engainatuta, beti bila ibiltzera kondenatuta, ez dagoena ez baita inoiz aurkitzen. Sagar debekatua jan izanagatik ezarririko zigorra. Evak ezin izan zuen orduz geroztik anima ukitu. Larrua bai, larrua eta txistua. Adanen ilea, Adanen zakila. Baina ez zion inoiz gehiago anima ukitu eta Eva, Adanekin zegoenean ere, maitasuna egiten edo erditzen ari zela ere, Eva bakarrik sentitzen zen. Agian bai, agian hori izan da zigorra, sagar debekatua jateagatik emandako kondena. Agian, amore eman behar da bakea izateko. Bilatzeari utzi. Etsi. Lasaitu. Non dago, azken batean, lasaitasunaren eta bakardadearen arteko muga. Amore eman. Etsi. Adanen anima bilatzeari utzi. Bestea ukitu nahi izateaz ahaztu. Bakardadeari amore eman, bide eman. Onartu”.* (27-28. or.)

Polita iruditu zait pasarte., bere zentzuagatik, bere esanahiagatik. Teresa bere egoerari azalpen bat bilatzen saiatzen da. Bakarrik sentitzen da, eta bakardade horri behin eta berriz irtenbide bat bilatzen saiatzen bada ere, ez du inondik aurkitzen. Honela, hau onarturik, bere egoera Evarenarekin

konparatzen du: Sagar debekatua jan izanagatik, Adanen anima ezin ikutzea izan zuen zigortzat. Eta horixe da Teresak bere bakardadea azaltzeko aurkitutakoa: zigorra. Behin eta berriz saiatu arren, ez du lortuko Andrésekin bakardade horretatik ihes egitea; bere gorputza izango du, baina ez bere anima. Horregatik, agian, Teresarentzat bakardade hori onartzeko ordua iritsi da, irtenbiderik gabeko zigor hori onartzeko ordua. Dena den, eta Teresak berak aurrerago ikusiko duen moduan, egoera horrekin konformatzea ez da bere irtenbide edo soluzioa izango.

### **3. PASARTEA:**

*“Har ezazue nire bihotza, baina utz iezadazue lo egiten bakean, bakarrik lo egiten, negar bakarrik egiten, kontatuko al dizkit norbaitek ongi bukatzen diren kontutxo tristeak, irribarre batekin eror nadin loaren besoetan. Nazkatu naiz bukaera tristea duten ipuin alaiez”.* (132. or.)

Oso pasarte tristea dugu hau. Teresa erabat galdurik, goibel, bakarrik sentitzen da. Hainbeste, zeinen lasaitasuna baino ez duen erregutzen. Bi gizonen artean aurkitzen du bere burua, eta bere bihotza ere bi gizon haien artean zatiturik. Berak, ordea, ezin dio egoera horri aurre egin jadanik ez. Nekatuegi eta tristeegi sentitzen da aurrera jarraitzeko. Gauza bitxi bat eskatzen du: ongi bukatzen den kontutxo triste bat. Denok izaten dugu noizbait ongi amaitzen diren istorioak entzuteko beharra. Sarritan, geure errealitateari irtenbide onik aurkitzen ez diogunean, beste norbaiten edo fikziozko istorioren baten amaiera politarekin konformatu eta poztu behar izaten dugu. Egia esateko, nahiko penagarria da horrelako egoera batera heltzea, baina egia da ere denori gertatu izan zaigula, eta bere momentuan, bukaera zoriontsuko istoriotxoren batek lasaitu eta, behintzat minutu batzuek bada ere, poztu egin gaituela.

### **4. PASARTEA:**

*“Ausartu.*

*Gaixoeraren aitzakirik gabe. Analisisien justifikaziorik gabe. Ausartu erabateko zerbait egiten, datorren denbora zure egiten. Ez pentsatu lanaz. Ez pentsatu senarraz. Ez pentsatu familiaz. Zure herriaz ere ez, zure lekuez. Jendeaz. Ez pentsatu. Egin. Aurrera egin. Edo atzera. Aurrera edo atzera. Mugitu”.* (144. or.)

Horixe egin behar genuke denok: ausartu. Une batez geure buruarengan pentsatu, ez beste inorengan, ez beste ezertaz. Garen horrengan pentsatu eta gainontzeko guztiaz ahazturik, ekintzara jo. Hau ez da berekoia izatea, soilik bizitzan noizbait egitea beharrezkoa den zerbait. Ekintzara jo, eta ez pentsamendura. Ausartu egin behar dugu bizitzari zentzua eman nahi baldin badiogu.

## **5. PASARTEA:**

*“Orain ere bakarrik sentitzen zara. Herri hartako eguerdi hezean, gristasunaren erdian guardasola ireki nahian eta goierritarra agertuko ote zen zelatan, ezin etsirik, trena galtzen ari zinela kalkulatu zenuenean bezala. Bakarrik zaude eta hotz dagooela dirudi uda izan arren. Bakarrik zaude eta ez dakizu zer egin, trena harrapatzen saiatu edo oraingoan ere alde egiten utzi, guardasolen bat irekitzen duzun bitartean. Gizon madarikatuak. Izan dira bai zurekin zer egin jakin ez dutenak. Ugari. Bat baino gehiago behintzat, dexente”.* (150. or.)

Pasartearen ideia nagusitzat Teresaren bakardadea eta noraeza ditugu oraingoan ere. Galduta sentitzen da, eta bere egoera aspaldian bizi izandako batekin alderatzen du. Gizon ugari izan dira Teresaren bizitzan, baina bakar batek ere ez du bera zoriontsu egin, ez guztiz zoriontsu behintzat. Orain noraezean eta ezer egiteko gogorik gabe sentitzen da. Ez nuke nire bizitzan horrela sentitu nahi.

## **6. PASARTEA:**

*“Ez duzu irtenbiderik. Ez duzu zereginik, irteerarik, norabiderik. Baina zerbait egin behar duzu, norabait joan behar duzu. Ez duzu orain ere zain gelditu nahi. Bizitza ez da gelditu beldurrak hala eskatzen badio ere. Norabait joan behar duzu, beste leku batera, inoiz gelditzenez den denboratik ihesi. Ez duzu beste erremediorik. Denborak ez dio zure beldurrari jaramon egingo, ez da geldituko”.* (152. or.)

Pasarte hau aukeratu dut Teresa, azkenik, begiak ireki eta erreakzionatu beharraz ohartzen baita. Testuak dioten moduan, denbora ez da gutaz arduratzen, aurrera jarraitu baino ez du egiten. Horregatik, geure burua galduta ikustean, besoak gurutzatu eta geure bizitza alferrik alde egiten ikusten geratu ordez, irtenbide bat bilatu behar dugu, geure bizitza errotik aldatu beharrezkoa baldin bada.

## **7. PASARTEA:**

*“Luis eta Andrésen elkarrenganako kuriositatea, kanpoan uzten zaituen kuriositatea. Ezagutzen zaituzte. Zurekin oheratu dira. Zurekin, zure goputzarekin. Hori zara, zure gorputza. Oheratu zarete. Ezagutzen zaituzte. Kitto. Bukatu da. Akabo galdera. Ez dira elkarrekin oheratu, ez dira ezagutzen. Bada elkarrengandik ezagutzen ez duten hori. Baina zurekin zeharkatu dute eta ez dira zuregana iritsi, baina baietz uste dute edo berdin zaie. Ez dago ezer egiteko, dena den”.* (155-156. or.)

Pasarte bitxia iruditu zait honako hau. Nire ustez, beraiekin oheratu izanaren ondorioz, Teresa biluzik bezala sentitzen da Luis eta Andrésen aurrean, babesik, ziurtasunik gabe. Bi hauek, ordea, kontrako eran jokatzeko dute: ziur sentitzen dira, Teresa guztiz ulertu eta ezagutzen dutelakoan, eta

soilik berarekin oheratu izanagatik. Nire iritziz, horrek Teresari amorrua sortarazten dio. Azken finean, bere aurrean dauden gizon biek bere gorputza izan dute baina ez bere bihotza; eta arazoa zera da, beraiek baietz uste dutela.

## **8. PASARTEA:**

*“Gizon batek beti du denbora, nahi duen denbora guztia, munduko denbora guztia aita izateko. Emakumeak ez. Zuk, Teresak, ez. Badakizu betiko erabakiaren ordua iristen ari dela, ari zaizula, betirako ezetzarena. Amildegia. Bueltarik gabeko jauzia. Jausia. Eten gabe erortzea gorputzaren pisuaz abiadura handituz. Haurrik gabe zahartzen hastea. Azkar, oso azkar zahartzen hastea. Euskarririk gabe jaustea. Sarerik gabe jauzi egitea. Azken batean, bakea. Beste itxurarik gabeko bakardadea onartzea. Besarkatzea. Bakarrik gaude denok, zein bere zuloan, azkenaren zain”. (162. or.)*

Pasarte osoa aukeratu badut ere, aipatzen diren zenbait ideiek deitu dute nire atentzioa, batez ere. Lehenengo bi esaldiek, alegia, egia gordin bat isladatzen dute: gaur egun, oraindik, gizonaren eta emakumearen bizibaldintzak ezberdinak dira. Eta horretarako ez dugu hirugarren mundura jo beharrik. Izan ere, geure gizartean ere, emakumeok presiopean bizi gara, gehiago itxaron ohi da guregandik gizonezkoengandik baino. Ez da bidezkoa. Zer dela eta hori? Agian nire inpresio hutsa baino ez da.

## **9. PASARTEA:**

*“Tira, pasako zitzaien, dena den. Aurkituko zuten norbait. Gizonak molodutzen dira, banatzen diren bikoteetan gutxi irauten dute gizonezkoek beste emakume batekin elkartu aurretik, batik bat umerik ez dagoenean. Aurkituko dute norbait. Aurkituko du Luisek, Luis maiteak, Luis ederrak ere beste emakume bat eta zoriontsu izango da. Beharbada gogoratuko da zutaz noizbait eta ulertu egingo du ihes hau dela maitasunaren, bereganako maitasunaren azken pausoa. Handiena”, (176. or.)*

Oraingo honetan ere gauza bera gertatzen zait; guztiz ados nago pasarte honek dionarekin, hala gertatzen baita errealitatean. Banatutako gizon gehienek erraztasunez aurkitzen dute bikote berria, emakumeek baino askoz arinago. Guzti honek gizonezkoen bitzta askoz errazagoa dela pentsatzera eramaten nau.

Bestalde, ederra eta era berean ausarta iruditzen zait Teresak egiten duena, eta tristea aldi berean, Luisek hori ez ulertzea: ihes hau da berarekiko maitasunaren azken pausoa, azkena eta handiena.

## **10. PASARTEA:**

*“Hori gara, gure beldurra, gure beldurrak eta gure fantasiak. Horrek osatzen gaitu. Ezagutzen ditugunak, gogoan dugunak, gertatu arren gogoratzen ez dugunak eta gertatu gabe amesten dugunak. Guzti horrek egiten gaitu. Hori*

*gara. Maite duguna eta gorrotatzen duguna, gure begien kolorea, gure gorputza, gure oinaze eta plazerrak, txikitako gure amaren eskuen usaina”.*  
(181. or.)

Ederra iruditzen zait pasarte hau, liburuko ederrenetarikoa. Aken batean, zer gara gu denok sentimendu, bizipen eta gogoetak baino? Ba al dago guzti horiek gabe ezberdintzen gaituen zerbait? Itxurak? Itxura azaleko zerbait baino ez da, aldatu egin daitekeena, maneiatu. Gu pertsona moduan garena, ordea, gardena da, bakoitza berezi eta ezberdin egiten gaituena. Eta nola heltzen gara izatera? Garen modukoak izatera, alegia? Ba bizipen, sentimendu eta gogoeta guzti horien bidez, hain zuzen. Horioek ematen dizkigute geure alde onak eta txarrak, irakatsi eta ikasi beharrekoak, geure alde ederrak eta alde itsusiak. Geu garena, besterik gabe.

Antzeman daitekeenaz, hautatutako pasarte guztiak beren edukiarengatik hautatuak izan dira. Izan ere, liburu honek badizkio kontuan izateko eta gogoan hartzeko gauza interesgarri asko.

## **BIBLIOGRAFÍA:**

*Eta emakumeari sugeak esan zion*, Lourdes Oñederra. Erein.